

Plaza > Kultura



Nerea Olaxa eta Xabi Strubell Zura taldeko kideek *Haize hegoa* kantaren bertsioa egin zuten. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Mikel Laboaren kanten bertsio bana aurkeztu zuten atzo zortzi musikaririk, Iruñeko Hizkuntza Eskolan. Soinu eta estilo guztietako doinuen atzean, maisuaren usaina.

Laboaren lurrinak

Alberto Barandiaran Iruñea

Bernardo Atxagak behin kontatu zuen mozkorti batek esan ziona. Laboa ez zela musikaria, «garraiolaria» baizik. Haren musikak gogoia beste bazter batzuetara garraiatzeko bertutea zuelako. Atxagak erantsi zuen baietz, hala zela, eta Laboaren ahotsa usaina ere bazela. Usain sorta.

Atzo, Iruñean, Laboaren usainak eta lurrinak zabaldu ziren Hizkuntza Eskolaren aretoan, hainbat musikaririk haren kanten bertsioak haizatu zituztenean. Biolinak, saxoak, trikitia, pianoa, esku soina, ahots biluzia bera... dena nahikoa izan zen kantari handiaren musika eta hitza berriro zabaltzeko, estilo guztietara gainera.

Kontzertu etxekoa izan zen, kontzertu intimoa. Horrelako zerbait nahi zuten antolatzaileek, Euskal Kultura Astea prestatzen hasi zirenean. Mikelen heriotzaren gomuta oso indartsua zen oraindik, eta haren inguruan zerbait egin nahi eta Mikelen kantak kantatzea pentsatu zuten. Horretarako, hainbat laguni Laboaren kanta baten bertsioa eskatu zieten. Eta hainbat lagunek Laboaren bertsio bana prestatu dute. Atzo kantatu zituzten.

«Emanaldi txikia nahi genuen, Laboaren musikarekin eta izaerarekin bat zetorrena» zioen Ainhoa Aranburu Kultur Astearen



Aretoa jendez bete zen, Mikel Laboaren omenaldian. J.M. / ARP

antolatzaileak, kontzertua hasi aurretik. «Ez genuen oholtza handi bat nahi, musikaririk eta instrumentuz beteta. Musikari bat, instrumentu bat, eta xume-xumea».

Eta halaxe izan zen. Lurrinez betetako kontzertu txiki bat.

Uriberen dokumentala

Aurretik Imanol Uribek 1997an grabatutako *Haika Mutil* dokumentala ikusi ahal izan zen. Bixia izan zen. Haur batzuen ahotsak ozen entzun ziren dokumentalean Laboak *Haika Mutil* edo *Txoria txori* kantatu zuenean.

Ondoren, Xabi Strubellek eta Nerea Olaxak *Haize hegoa* kantaren bertsioa egin zuten. Gitarra eta ahotsa baino ez.

Arkaitz Minerrek bibolina aukeratu zuen *Urtsuako jauregia* kanturako. Musikariarentzat, Mikel Laboak hartu zuen eginbeharrerako bat ordezkatzeko du kanta horrek: herri kanta berreskuratzeko alegia. Minerrek ondo ezagutzen zuen kanta, baina ez atzean dagoen istorioa, Urtsuako jauregarekin ezkontzera doan Joane izeneko neska zertzeladak alegia. «Bibolina garbi ikusten nuen

musika honetarako, sotiltasunagatik. Dramatikoa ere izan daiteke. Kantek, musikak, berez, ez baitu janzkera handirik behar».

Gartxot kantariak, Iker soinu jolearekin lagunduta kantatu zuen *Denbora galduaren bila* gogoangarria eta Maddi Oihenartek, berriz, *Gure bazterrak*.

Ez zekien oso ondo azaltzen zergatik kanta hori. Baina Laboarekin erdi hitz egina omen zuen Juantxo Zeberio pianistaren laguntzarekin kanta horren bertsioa egin behar zutela. «Baina hura joan zen lehenago. Zer eka-

rriko diodan kanta honi? Ezer ez. Mikelek ekarri zion dena». Oihenartek maite ditu Joxean Artzen bertsoekin egindako kantak. Irakurketa bat baino gehiago ematen dituztelako. Eta ingurumenarekin lotuta daudelako.

Carles Belda musikari kataluniarrek Salvador Espriu poeta- ren hitzekin moldatutako *Assen-*

Imanol Uriberen 'Haika Mutil' dokumentalak zabaldu zuen kontzertua

Arkaitz Minerrek bibolina aukeratu zuen, eta Judith Monterok, saxoa

tire de grat kantatu zuen esku soinuaren laguntzarekin, eta Judith Monterok *Baga, biga, higa* kantaren bertsio garaikidea jo zuen saxoarekin. Eta Laboa aspaldiko laguna zuela azaldu zuen. «Gure etxeko hots banda zen ia. Baina gero kanpora joan nintzen, eta Laboa euskaltasunaren eta Euskal Herriaren sinbolo bilakatu zen niretzat. Eta gero musika garaikidea ikasten hasi, eta Lekeitio horien balioa ikusten hasi nintzen».

Monterorentzat, Laboak egiten zuen guztia «koherentea eta benetakoa zen». «Gustatzen zait esperimentala delako, eta oso zahar kutsukoa ere bai, sorgin kutsu hori, trantzea... baina era berean oso garaikidea da. Hor badago bide bat jorrazteko, bai. Era askotatik ulertu eta entzuteko modua duelako haren musikak».

Xabier Erkiziaren txanda izan zen gero. Hark ere, Lekeitiar bat. «Atzean istorio bat dago» azaldu zuen musikariak. «Duela hiruzpalau urte, Laboa gurekin inprobisatzea etorri zen gure lokalera. Informala izan zen, eta enkargu modura, Lekeitio bat eman zigun, moldatzeko. Beraz, aukera hau atera zenean, zorretan ginela irudititu eta, eta berak proposatutako Lekeitio hori, Lekeitio bost hori jotzea erabaki genuen».

Esperimentatzeko gogo hori azpimarratzekoa da, Erkiziarentzat. «Inolako aurrejuzkurik gabe inprobisatzeko gai izan zen. Eta, gainera, norberaren zainak eta leerroak ahanzi gabe. Esperimentatzeko behar da ezagutzea nondik heldu garen. Beharbada ahazteko, baina jakin behar da jatorri hori non den» Berriki Timorren izan da musikaria, hango kanten inguruan informazioa biltzen. «Herri bakoitzaren memoria gordetzeko kantuak erabiltzen dituzte. Mikelek ere antzeko zerbait egin zuen».

Kontzertuari amaiera Oreka Tx taldeak eman zion, *Martxa baten lehen nota* kantaren bertsioarekin».